Una cuestión importante a valorar son las condiciones de uso de las redes sociales donde participamos (que, por cierto, asustan). Juegan con un lenguaje complejo para que aceptemos cosas impensables sin leerlo siquiera. Muchas veces lo hacen para cubrirse las espaldas, pero otras tantas, para usar nuestros datos.

Por ejemplo, las condiciones de uso de Facebook cuentan con algunas cláusulas que le otorgan la propiedad sobre los contenidos que se crean en ella. Concretamente éste es el párrafo de la discordia:

> *Para el contenido protegido por derechos de propiedad intelectual, como fotografías y vídeos ("contenido de PI"), nos concedes específicamente el siguiente permiso, de acuerdo con la configuración de privacidad y aplicaciones: nos concedes una licencia no exclusiva, transferible, con posibilidad de ser sub-otorgada, sin royalties, aplicable globalmente, para utilizar cualquier contenido de PI que publiques en Facebook o en conexión con Facebook (en adelante, "licencia de PI"). Esta licencia de PI finaliza cuando eliminas tu contenido de PI o tu cuenta (excepto en el caso en que tu contenido se ha compartido con terceros y éstos no lo han eliminado).*

«*No es "tu" perfil en Facebook. Es el perfil de Facebook sobre ti.*» Leif Harmsen, citado por Virginia Hefferman en el NYT.

En Twitter nos encontramos lo siguiente:

- Tú eres responsable de todo lo que publiques. Si hay un contenido indebido, Twitter no se responsabilizará ni podrá ser enjuiciado por ello (y tampoco tiene obligación de retirarlo). De hecho, eres responsable hasta del uso que hagan terceros de tu contenido.
- Pueden cesar el servicio en cualquier momento (de forma temporal o permanente) sin necesidad de avisar previamente.
- El servicio podrá incluir publicidad. Ellos mismos indican que están dejando la puerta abierta a este área, pero que por ahora no van a poner en marcha nada.
- Los contenidos son nuestros. Sin embargo, se les concede una licencia mundial, no exclusiva, libre de royalties y con derecho a sublicenciar. Con lo que podrán usar, copiar, reproducir, procesar, adaptar, modificar, publicar, transmitir, mostrar y distribuir dicho contenido en cualquier sitio. Luego nos aclaran que esto es necesario para poder mostrar nuestros tweets al resto del mundo... Eso sí, también pueden pasar esa información a otras compañías, organizaciones o individuos que se trabajen con Twitter. Por supuesto, aclaran que de ese uso que se haga no recibiremos compensación monetaria.

Y en Tuenti:

- “TUENTI es el titular de todos los derechos de propiedad industrial e intelectual relativos al Servicio, a excepción de los contenidos de los Usuarios que les seguirán perteneciendo conforme a lo establecido en el apartado siguiente”.
- *“Al publicar contenidos en tu perfil conservas todos tus derechos sobre los mismos y otorgas a TUENTI una licencia limitada para reproducir y comunicar públicamente los mismos, para agregarles información y para transformarlos con el objeto de adaptarlos a las necesidades técnicas del Servicio. Esta autorización es mundial, no exclusiva. La anterior licencia quedará rescindida una vez que elimines tu contenido del Servicio o des de baja tu perfil”.*

Autoría

Lorena Fernández
http://www.loretahur.net
loretahur@gmail.com

Todo el material está on-line en:
https://sites.google.com/site/saresozialakredessociales/

Licencia de los contenidos

Creative Commons Atribución-CompartirIgual 3.0 Unported (*CC BY-SA* 3.0)

http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.es



Nola arnasten dute gure gazteek Interneten

Gazteriaren Euskal Behatokia 2011

Aiora Kintana Goiriena

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin

CC BY-NC-SA

1.Taldearen aurkezpena

Nor gara, zein erakundetik gatoz eta zein izan da gure sareko esperientzia. Dinamika honen helburua elkar ezagutzea eta gizarte sareetan izandako esperientziak taldearekin banatzea da. Ondorengo egunetan jasoko dugun informazioak norbere praktikaren lagungarri izan nahi du. Horregatik sare bat osatuko dugu artilearekin denon artean.

2. Gazteaukera gizarte sareetan

Gazteauakerak 2006an ekin zion 2.0 deritzon sareko komunikazio lana abian jartzeari. Garai hartan hasi zeren blogak azaltzen eta Gazteaukerak beste hainbat komunikabidek eta erakundek bezala, berea zabaldu zuen. Apurka-apurka elkarrizketak, albisteak, zein erreportajeak biltzen zituen blogak partaidetza zabala lortu zuen., iruzkin ugari eta bisitak ere asko.

Urteak aurrera egin hala, sareko komunikazioak erabiltzaileak beste kanal batzuetara bideratu ditu; hala nola, facebook, twitter edo tuenti bezalako sareetan daude egun gazteak. 2009an sartu zen Gazteria Zuzendaritza twitter, tuenti, facebook, delicious edo youtube bezalako sareetan. Gazteriako zerbitzuen onuradunak sare hauetan zeudela ikusirik bertara gerturatu beharra zegoen eta sare sozial birtualetan lanean aritzea behar-beharrezkotzat jotzen da egun.

Kanal berri hauek komunikatzeko modua pixka bat lekuz aldatu dute, lehen telefonoa eta emaila erabiltzen bazituzten Gazteria Zuzendaritzarekin komunikatzeko, orain, mezuak, facebook, twitter, tuenti edo youtuben ere jasotzen ditugu.

Horrenbeste kanal zabalik izateak baditu bera zailtasunak kudeatzeko orduan eta arduradunak eta giza baliabideak eskura jartzea beharrezkoa da. Lan taldearen arten informazioa banatu eta komunikatuak egotea ezinbestekoa da, erantzun egokiak eman nahi badizkiegu gazteen eskaera eta beharrizanei.

3. Zertarako balio dute gizarte sareek nire lanean?

Gizarte sare birtualetan egotea erabakitzen badugu, gure **helburuak zeintzuk diren finkatzea** beharrezkoa da. Helbururik gabe ez dugu norabiderik eta frogetan aritzeak noraezean, bere arriskuak ditu. Batez ere arrastoa uzten dugulako eta jarrera batzuk agian ez direlako ontzat hartuak izango gure publikoaren artean.

Gazteekin lan egiten badugu honako helburuak izan genitzake sareko komunikazioan:

1. Gure programen berri ematea gure onuradunei
2. Gazteenganako hurbilketa (ezagutza)
3. Komunikazioa bultzatzea
4. Networking-a (sare lana egitea beste erakundeekin)
5. Gainontzekoen proiektu interesgarrien berri ematea

Bestalde, gure **publikoa non dagoen** ere jakin behar dugu edonon sartu aurretik. Adin tartearen eta baita garaian garaiko moden arabera sare batean edo bestean egongo dira gazteak.

Galderak egitea ondo dago baina edozein saretan galdezka eta gure programen berri ematen hasi aurretik bertan gertatzen dena **entzutea beharrezkoa** da. Berriak garenean talde batean hasieran besteek diotena ikusi eta talde horrek dituen arauen berri izatea komeni da. Netiquette-a eta deritzo sareko talde ezberdinetan erabiltzaileek jarraitu behar dituzten jarrera arauei. Talde bakoitzak bereak ditu, eta nahiz eta batzuk antzekoak izan, badira baita arau espezifikoak dituztenak ere.

Kontutan hartzeko beste puntu bat sarean izango dugun **jarrera da**. Kanalak zabaltzea erabakitzen badugu behar beharrezkoa da ondoren berauek zaintzea. Horrek, giza baliabideak eskatzen ditu eta baita pertsona hauek aktiboki inplikatzea zereginetan. Gure egitasmo eta interesen **dinamizatzaile** izango dira dinamizatzaile hauek eta baita erakundearen ordezkari (community manager). Ez da ahaztu behar pertsona hauek izango direla gure publikoarekin harreman zuzena izango dutenak.

Gizate saren arduradunek **entzun eta mezuei erantzuteko** gai izan behar dute. Haserreek, galderek eta sareko eztabaidek erantzuna eskatzen dute eta azkartasunez jokatzea komeni da. Era berean, sarea ezagutu eta eskuzabaltasunez aritzea oso baloratua izan dateke internauten artean: “Zenbat eta norberak gehiago eman orduan eta gehiago jasoko du”.

4. Nola jaso dezaket informazioa era ordenatuan?

Egia da Interneten denetarik dagoela eta informazio gandosiak aztoratu egiten gaituela (Infoxikazioa). Gazteekin lanean bagabiltza, Interneten zein kalean, sarean gertatzen denaren berri izatea komeni da.

Baina non izan dezaket informazio interesgarriaren berri?

Orain dela urte batzuk arte norberak jo behar zuen informazio iturrietara, hau da, web orri eta blogetara jo behar genuen informazio bila. Azken urteotan bestalde oso ohiko bihurtu da RSS deritzon sindikazio sistema.

RSS XMLren familiako fitxategi formatu bat da, sarritan eguneratzen diren albisteen webgune eta blogentzako bereziki prestatua dagoena. Honi esker informazioa elkarbanatu eta beste webgune batzuetan erabiltzea posible da. Honi sindikazioa deritzo.

Akronimoak hurrengo esanahiak izan ditzake:

* Rich Site Summary (RSS 0.91)

* RDF Site Summary (RSS 0.9 eta 1.0)

* Really Simple Syndication (RSS 2.0)

RSS jarioak irakurri eta aurkezten dituzten programak jario-irakurleak dira.

Sindikazio formatu honen erabilpen nagusia blogetan ematen da. Jario-irakurleei esker (RSS jarioak irakurtzeko programa edo guneak) nahi bezain besteko blogen eduki

laburtua eskuratu daiteke sistema eragilearen mahaigainean, posta elektronikoko aplikazioetan edo jario-irakurle bezala funtzionatzen duten aplikazioetan. Ez da beharrezkoa web nabigatzailea ireki eta webgune guztiak banaka bisitatzea. (iturria Wikipedia)

5. Besteengandik ikasten: Benchmarking-a

Sarean gertatzen denaren berri izateko ikusi dugu sindikazioa dagoeneko baina gure jarduera antzekoak egiten dituztenak ere badira. Benchmarking-a enpresetan asko erabiltzen den sistema bat da produktu eta zerbitzuak ebaluatu eta hobetzeko orduan.

Konparadoreak edo benchmark-ak (kalitatezko neurriak) hartzean oinarrizten da Benchmarking-a; hau da gure antzeko jardueretan diharduten eredu onak hartu eta gure jardueretara transferitzea ezagutza hori. Hitz gutxitan besteengandik ikastea, alde onak eta txarrak neurtu eta gurean aplikatzea.

Gugaz proiektua

Zer da? 2008an Gueñezko Udaleko Gazteria Sailak Enkarterrietako gazteentzat martxan jarritako proiektu integrala da. Gazteentzako plangintza osoa biltzen du, online eta offline ekintzak konbinatuz. Sareari dagokionez, Web ataria, bloga, facebookeko orria zein Gugaz TB deritzon egitasmoa uztartzen ditu. Gazteen artean partaidetza bultzatzeko kreditu sistema bat jarri dute abian. Gazteentzako prestatzen dituzten ekitaldietan partaide direnek ondoren bidaia eta bestelako ekimenetarako dirua jasotzen dute trukean.

Gaztezulo

Zer da? Euskal Herriko gazteei zuzenduriko hilabetekaria da. 10 urte bete ditu eta gazteentzat euskaraz idatziriko aldizkari erreferentea da. Web orria eta paperezko aldizkariaz gain, derrigorrezko bigarren hezkuntzan euskarazko produktuen irakurzaletasuna bultzatzeko Irakurriz gozatu ekimena abian jarri dute. Euskal Herriko udalekin izandako akordioei esker gazteek doan jaso dezakete aldizkaria etxean. Bideo lehiaketak eta bestelako zozketak era badituzte. Facebook bidez komunikatzen dira eta buletin digitala ere badute.

kolokon.com

Zer da? Portugaleteko udalaren drogomenpekotasunaren prebentziorako zerbitzuak abian jarritako ataria da. Drogei, sexuari eta rock-and-rollari buruzko eztabaida gunea da Kolokon.com. Kontsultak, argibideak, berriak, agenda, eta sare sozialetara estekak ditu.

Drogen inguruko informazioa eman eta berauek dakartzaten arriskuez erabakiak era arduratsuan hartzeko gomendioak ematen ditu. Era berean, berriki, beste gai batzuen inguruko argibideak ere eskaintzen dituzte, hala nola, erosketak, mugikorra, Internet, gizarte sareak, etxeko arazoak zein lagun arteko arazoak. 48 ordutan erantzuteko konpromisoa dute eta zerbitzua anonimoa da. Facebook, tuenti eta twitteren daude eta parte hartzea nahiko handia da.

Flickr eta Youtubeko jardunean banaka zein taldean jokatzen dutenak badira. Flickrreko taldeek gai bat hartzen dute ardatz eta argazkiak gai horri loturikoak izaten dira.

Youtuben bestalde badira kanal pertsonalak zabaltzen dituztenak ere. Malviviendo, euskaraz Bizitza gaiztoan, 2008ko azaroaren 24ean hasitako Internet bidezko telesaila da, bere hastapenetatik arrakasta handia izan zuena, ahoz ahoko fenomeno nabarmen baten bitartez. Seriean profesionalak ez diren aktoreek eta teknikoek egiten dute lan, lansaririk gabe eta boluntarioek emandako diruari esker.

Euskal herrian fenomeno sozial bihurtu zen Dancing in the Basque Country edo Euskal Herrian dantzan Matt Harding´s-en ideian oinarrituriko Iñaki Goienetxearen bideoa (268,587 bisita). Sareko komunikabideetan zein telebista kateetan oso harrera ona izan zuen eta Euskal herrian “hit” moduko bat izan zen.

Ideien birplanteamenduak edo erreziklaia irudimentsuak bere fruituak eman ditzakeenaren adibie da bideo hau.

Brasilgo BOX1824 jarrera eta kontsumo tendetzietan espezialista den enpresak “We All Want to Be Young" bideoa egin dun berriki. 5 urtetan zehar egindako ikerketa ezberdinen emaitza da bideoa eta belaunaldi ezberdinetako gazteen kontsumo tendentziak irudikatzen ditu.

6. Gizarte sareen erabilerak aztertzen

Argi dago gizarte sareek pontentzialtasun handia dutela eta sareetatik jende asko pasatzen dela egunero. Gure lanean aritzeko interesgarria eta baliagarria izan daiteke baita gizarte sareen erabileraren alde bideak pixka bat aztertzea, alde onak eta txarrak. Beti ere tresna bat direla ezin ahantzi dezakegu eta tresna ondo erabili ezkero baliagarria izan daiteke baina gaizki erabilita kaltegarria.

6.1 Sare sozialen erabilpenaren alde positiboak:

- Komunikaziorako tresnak dira
- Lagunekin harremanetan jarraitzeko aukera ematen dute
- Ezagutzak elkarbanatzeko
- Berriak zuzenean jasotzeko
- Ekintza sozialak burutzeko
- Jendearekin harremanetan jartzeko bidea ematen dute: hitz egin, antolatu, planak egin etb.
- Edonon dagoen jende berria ezagutzeko aukera ematen dute
- Ez da dirurik gastatu behar
- Teknologia berriak ezagutu eta trebatzeko aukera
- Informazioa bilatu, banatu eta era errazean heltzen zaigu
- Bat-batekotasuna

6.2 Sare sozialen erabilpenaren alde negatiboak

- Adikzioa/ denbora asko pasatzea
- Pribatutasuna kolokan, kezkak
- Identitatea galtzeko arriskua, profilen lapurketa, gezurrak

- Ciberbullyn-a

7. Zertan aritzen dira gazteak gizarte sareetan?

Batez ere aisialdiari loturik dago gazteen sareko jarduna, hala, lagunekin harremanetan mantentzeko (doan), gustuko duten informazioa partekatzeko, argazkiak, bideoak, lanak, lagun berriak egiteko edo urrun daudenekin komunikatzeko, ondo pasatzeko zein ligatzeko ere erabiltzen dituzte sareak.

8. Sarean aritzeko zenbait aholku

Aholkuak baino gehiago “pistak” izan daitezke ondorengo zerrendan aipatzen diren jarraibideak. Sarean egiten diren harremanetan kaleko harremanetan bezala ez daude formula magikoak, buruz jokatzea eta kalean egingo ez zenukeenik sarean ez egitea izan daiteke aholkurik onena:

- Belarriak adi izan
- Izan zaitez esku-zabala
- Ez zabaldu soilik zure mezua
- Kalean egingo ez genukeenik ez ezazu egin sarean
- Izan zaitez gardena
- Egokitu zure mezua testuingurura
- Azkar eta egoki erantzun
- Neurtu maiztasuna
- Hizkuntza aukera
- Sareko elkarrizketa kontrolatu
- Onartu zure akatsak

9. Tuentin eta facebooken dabiltzanak aztertzen

Adibide ezberdinak aztertuko ditugu ondoren facebook eta tuentin dabiltzan, erakunde, enpresa eta markak. Eredu hauek interesgarriak izan daitezke gure jarduna baloratu eta nola gabiltzan ikusteko. Ideiak era har genitzake jarduera ezberdinen inguruan.

9.1 Harrapazank tuenti

Non: Bilbon, 2006an hasitako programa da. Tuentin, ikastetxeetan eta eskenatokietan du eragina harrapazankek. Online eta offline ekintzak uztartzen ditu (blended networking) eta gazteen artean partaidetza zabala du.

Helburua: Euskara aisialdiko ekintzetan sustatzea du helburu eta horretarako gazteentzat interesgarri diren lehiaketak abiarazi ditu: disdirazank, kantazank, jozank edo komunikazank, besteak beste. Bilboko Udaleko Gazteria Sailaren programa bat da eta topaguneak kudeatzen du.

Beraien ekimenen berri emateaz gain lehiaketen bidez parte hartzea sustatu eta erabizatzaile berriak bilatzen ditzute tuentin.

9.2 Gaztea tuentin

Non: Ohian Vegak Gaztean duen larunbatetako Top Gaztea programa entzuleek eskaturiko kantuekin betetzen du. Zeregin honetan denbora darama eta oso harrera ona du praktika honek. 6000 erabiltzaile ditu tuentin eta berak pertsonalki kudeatzen du sarea. Esan dezakegu pertsona “famatua” dela gazteentzat eta nolabait eredugarria.

Helburua: Publikoarekin fideilzatzea eta programa entzutetsu egitea.

9.3 Telepizza tuentin “Bete gratis al caribe con tus colegas”

Non: 1.000.000 bat erabiltzaile lortu nahi dituzte tuentin eta horretarako kariberako 5 lagunentzako bidaia bat oparituko dute. Erabiltzaileek 1.000.000 zale dituenean orriak telepizzak egitea nahiko lukeena adierazi behar du beko taulan.

Helburua: 1.000. 000 zale lortzea eta publikoaren fidelizazioa lortzea da.

9.4 Guardia zibila eta polizia nazionala tuenti

Non: Guardia zibilak eta polizia Nazionalak Tuentin orri bat dute Interneten arriskuren inguruko aholkuak emateko, Contigo kanpainaren barne dago. 70.000 zale ditu

9.5 Noiz agenda Facebooken

Non: webgunea, facebook eta paperezko edizioa ateratzen dute. Gazteei zuzenduriko egitasmo kulturalen berri ematen dute. Facebook erabiltzen dute batez ere komunikatzeko eta jarraitzaile asko dituzte.

Helburua: Publikoarekin gertuko harremana sortzea eta kultur egitasmoen berri ematea.

9.6 El conquistador del fin del mundo eta vaya semanita

Non: Bi telebista programen arteko lehia piztu dute EITBkoek. Vaya semanita programak eta el Conquitador del fin del mundo saioek elkarren artean apustua alegia. Vaya semanitak 100.000 zale lortu behar ditu eta el Conquitadorrrek 50.000. Galtzaileak froga bat egin beharko du. Telebista eta Internet munduak uztartzen dituen kanpaina da berau.

Helburua: audientzien fidelizazioa lortzea eta baita bi medioetan audientzien gorakada.

9.7 Zeuk esan facebooken

Non: 116 111 doako telefonoa eta postontzi anonimoaz gain, facebooken, tuentin eta twitteren daude, atari eta 2 blogez gain.

Helburua: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta gizarte gaietarako sailak jarririko kanala da. Zeukesan-ek laguntza emateko telefonoa eta web-orrialdea dauzka. Aholkatzeko, orientatzeko eta informatzeko doako zerbitzua da. Nerabe eta gurasoei zuzendua dago.

9.8 40 días en la cama por un mundo slow facebooken

Non: Flex koltxoi etxeak Slow mugimenduko 2 kideekin abian jarritako kanpaina da. 40 egunetan 2 lagun gela batean egongo dira, ohean eta beraien bizipenak, blogean, facebooken, flickren, twitterren, instagramen zein telebistako iragarkietan plazaratuko dituzte.

Helburua: Helburu bikoitza du, alde batetik Slow mugimenduaren aldeko irudia ematem du flex-ek eta bestalde koltxoiak saltzea eta marka berari irudi positiboa ematea slow mugimenduarekin lotzean.

10. Atxekimendu sozialeko kanpainak

Mugimendu sozialen aldeko Interneteko kanpinek jenderengan itxaropen handia sortzen dute, nolabaiteko ilusioa gauzak alda daitezkeela sinistu eraziz. Baina sarri askotan gauzak ez dira klik batean konpontzen eta iritzi eta eztabaidak sarean baino ez dira gelditzen (Sinde legea kasuko). Era berean ez da ahaztu behar jende asko ez dabilela sare sozialetan eta bestelako ekintzarik egin gabe ez da horren erraza gauzak aldatzea. Gainera sare sozialek askotan lotura arinak eta bapatekoak bideratzen dituzte baina egunerako lanean konpromisoa hartzeko edonor ez da prest egoten.

- **Korrika (7.600 zale):** 2011ko korrikako kanpainan gogor darabilte herriz-herri gertatzen denaren berri ematen eta bideoak sartzen facebooken. Aurten GPS bidez erakusten dute korrika nondik dabilen uneoro korrikako atarian
- **Alakrana (31.800 zale):** Euskal arrantzaleen aldeko kanpaina handia egin zen jendea eta erakundeak mugiarazteko.
- **Buscando una oportunidad para Arene (34.148 zale):** Arene haurraren lagun eta gurasoek facebookeko talde bat sortu zuten haurtxoak behar zituen mediku tratamenduen alde.
- **Twitter euskaraz:** Lander Arbelaitz Argiako kazetariak twitter euskaratzeko abian jarririko kanpainak 3000 atxekimendutik gora jaso ditu eta prest du baita lantaldea

11. “Zaindu maite duzun hori”

Ruperren abestiak dioen bezala “Zaindu mate duzun hori” sareko harremanak ere zaindu egin behar dira bestela galtzeko arriskua dago. Askotan lotura finak ditugu gure erabiltzaileekin ez gertukoak, eta norbaitek zerbait eskatu edo zalantzarenbat dugunean komeni da ahalik eta arinen eta zehatzen erantzutea. Gardentasuna asko eskertzen Interneten. Bestalde harremanak apurka apurka egiten joatea komeni da, kalean egiten dugun bezala.

12. Nola elikatu ditzaket sareak

Norbere baliabideak erabiltzea eta eduki propioak egitea oso ondo dago baina batzuetan ez dugu denborarik edo baliabiderik izaten horretarako, argazkiak, bideoak zein audioak egiteko. Badira bada, Interneten Lizentzia libreak dituzten edukiak eta baimenik eskatu gabe erabili ditzakegunak (Creative Commons kasuko). Baina eduki hauetaz gain badira baita beste bide batzuk edukiak besteengandik lortzeko.

13. Edukien egokitasuna

Blog batean zein sare sozialetan idazten hasi aurretik atzean dugu publikoari ere erreparatu behar diogu nolabaiteko interakzioa lortzea bada gure asmoa. Komenigarria da, gazteen kasuan gustuko izan daitezkeen gaiak lantzea eta hizkuntza egokia erabiltzea horretarako. Agian gure blogeko edukiak oso interesgarriak dira baina gure publikoa tuentin badago beraiengana gerturatu beharko ditugu edukiok, estekak emanez.

Puntualki egiten diren kanpainek ere tratamendu berezia izatea komenigarria da. Era honetan, esfortzuak bilduz jende gehiagorengana hel gaitezkeelako.

Gazte Txartelaren I Low Cost kanpainak esaterako, telebista, gizarte sareaketa bloga erabiliko ditu bozgorailu gisa. Udara honetan 6 pertsonek+2 kazetarik interrail bidaia egingo dute doan eta beraien bizipenak blogean jarraitzeko aukera izango dugu.

14. Nola idatzi Interneten

Jacob Nielsen Interneteko erabilerraztasun maisua da eta hauek dira bere ustetan era egokian idazteko jarraitu behar ditugun urrezko hiru arauak:

- Labur idatzi: Paperean idatziko zenuenaren erdia baino gehiago ez ezazu idatzi blogean
- Jendeak erraz aurkitu dezan idatzi: Argi eta era sinplean
- Hipertestua erabili ezazu: Informazioa zabal dadin beste orrietara (estekak erabili).

Bestelako gomendio batzuk ere badaude honen inguruan:

- Interesgarriak diren edukiak idatzi
- Ondorioak hasieran jarri:
- Ideia bat idatzi paragrafo bakoitzeko
- Erabili akziodun hitzak
- Listak erabili 7 baino gehiago ez
- Esaldi laburrak idatzi
- Azpi tituluak erabili
- Estekak erabili
- Zuzendu zure lana

15. Non daude baliabideak

Flickr: Flickr webguneak argazki eta bideok on-line konpartitzeko aukera ematen du, argazkizaleen komunitatea delarik. Flickrek aukera ematen du argazkiak munduko beste edozeinekin partekatzeko eta blogari askok erabiltzen dute argazki biltegi bezala. Web 2.0ko beste programa askok bezala, etiketak erabiltzen ditu argazkiak izendatzeko.

Flickrren dauden hainbat argazkik Creative Commons lizaentzia dute eta argazki hauek erabiltzea posible da.

Google images: Googlen bilaketa aurreratuetarako jo ezkero, “erabilera eskaerak” atalean, Creative commons aukerak hautatu genitzake.

Youtube: Bideoak igon eta banatzeko webgunea da eta google-ek erosi zuen 2006an. Oso ezaguna da bideo amateurrak era errazean igo eta elkarbanatzeko aukera eskaintzen duelako. Horretarako HTML kodea eskuragarri dago enbed deritzon aukeran**.**

Vimeo: Bideoak igo eta banatzeko plataforma da. Diseinua youtubek baino landuagoa du eta bideoak jaisteko aukera ere ematen du bideoaren jabeak hala nahi badu eta loggeatuta bagaude.

Jamendo: Jamendo gaur egun gero eta zale gehiago irabazten ari den sareko musika komunitatea da, Creative Commons lizentziapean musika igo, entzun eta jaisteko gero eta musikari eta musikazalee gehiagok erabiltzen duten lanabesa.

16. Nola bultzatu partaidetza

Gure gazteen artean partaidetza bultzatzeko ez dago truko miragarririk. Beraiei informazioa helarazi edo beraiengan eragin nahi badugu, lehenengo gauza erabiltzen dituzten tresnak ezagutzea da. Horretarako, beraiek erabiltzen dituzten tresnak edo antzekoak erabiltzera ohituta egon beharko dugu. Horiei lotuta dauden jarrerak eta horiek erabiltzeko berezitasunak ere ezagutu beharko ditugu.

Lehenengo pausoa eman dugunean, hainbat aukera izango ditugu, lortu nahi dugunaren arabera.

Informazio kanal bat ireki

Informazio kanal bat ireki ahal izateko ez da gauza handiegirik egin behar. Interneteko sare sozial horietan kontu bat sortu eta hori ezagutarazi. Zure helburu diren gazteei sortu duzula aipatu eta nahi badute izena emateko aukera eman. Era berean, erabiltzen dituzten webgune, blog edo beste kanaletan, sortzen duten informazioa sare horietara erraz eramateko aukera ematen duten tresnak erabili behar dira. Zuzenean informazioa bertara bidaltzen dutenak, edota nahi duenak hala egin ahal izango duela ziurtatzen duten tresnak baliatu behar dira.

Helburua argia da, egiten ditugun ekimenen informazioa hainbeste denbora pasatzen duten leku natural batean ezagutarazi. Orain arte beste komunikazio bideak erabili ditugun bezala, informazio kanal moduan, alegia.

“Konplizeak edo konektoreak” bilatu

Talde konkretu batean eragin nahi izanez gero, garrantzitsua izango da talde horren dinamika ulertzea. Informazioa helarazi nahi badiozu, aurreko aukerarekin nahikoa izango zenuke, baina horrelako ekimenek jende berezia behar dute. Beraien sarean onartua behar zaituzte, hau da konplize bat izan behar duzu. Talde horrek zu ontzat hartu behar zaitu. Horregatik pertsona horiek ezin dira edozein izan. Salesman moduan aritzea ez da egokiena, batez ere gazteen artean aurkako jarrera sor dezakezu.

Oso kasu gutxitan gertatzen bada ere, batzuetan gaztetatik gertu dauden zenbait pertsona eredu bilakatzen dira. Gazteen artean beraiek erabakitzen dituzte zein diren pertsona horiek, baina batzuetan gazte horiekin kontaktu asko duten pertsona nagusi batzuek ere lortzen dute: aisialdi taldeetako zenbait pertsonek, irakasle batzuk (oso-

oso gutxi), kirol taldeetako zenbait kide... Pertsona horien bidez saia gaitezke beraiekin harremanetan jartzen.

Aldaketa txikiek- aldaketa globalak

Aldaketa txikiei esker eta testuinguruaren arabera, aldaketa txiki horiek beste batzuengan eragina izan eta eraldaketa globalak ekar ditzaketela, *tipping point* batean amaitu arte gerta liteke. Kanpaina bat abiatu, baina kanpaina horren garraiatzaile ez dugu beti guk izan behar, sare horietako partaideak baizik. Mezua bota dezakegu, baina beraiek erabakiko dute mezu hori garraiatu edo ez. Normalean kanpaina horietan kontrola galtzen da, sarean jendeak bere kaxa hartzen dituelako.

Formatu erakargarriak erabili

Kanpainak eraginkorrak izan daitezen eta gazteen partaidetza bultzatzeko interesatzen zaizkien gaiak eta edukiak izan behar ditu beronek. Mezuak argia eta itsaskorra izan behar du eta besteei pasatzera gonbidatzen duten elementuak izan beharko ditu. Hori lortu ahal izateko interesgarriak dira, adibidez, Interneteko sare sozial horietan mezuak garraiatzea proposatzen duten lehiaketak, flash mobak, lipdub-ak etab.

Horrelako kanpaina bat egiterako garaian, testuingurua ezagututa edo ezagutu gabe egin dezakegu. Noski, sare horietako pertsonek beraien artean dituzten harremanak ezagututa erreferenteak eta konektoreak zein diren jakinda, mezua errazago zabaltzen saia gaitezke.

Online-offline konbinazioa bultzatu

Aurrez aurreko egitasmoak sareko komukazioarekin konbinaturik askoz eraginkorragoak izan daitezke eta alderantziz baita. Bi espazioetan izatean parte hartzaileek hobeto ezagutu gaitzakete eta guganako beste ikuspegi bat izan dezakete. Lotura hurbilagoak lor genitzake era honetan.

17. Bogan dauden euskarriak erabili

Modek badute eragina gazteengan eta sarean, kalean bezala, badira baita modak edo tendentziak ere.

Argazki, bideo, bideoklipak, Lipdub, Flashmob-ak eta bestelakoei esker partaidetza bultzateaz gain online eta offline edukiak ere lor genitzake gure atarirako. Lehiaketa ezberdinak gure “munstroa elikatzeko”, hau da gure blogetan edo atarietan jarrito ditugun bideoak, argazkiak zein testuak lortzeko erabil ditzakegu, partaidetza sustatzen dugun bitartean.

Beste era bat zeregin hauetan lagunduko gaituzten kolaboratzaileak lortzea da, horretarako, bekak, diru-poltsak zein bestelako trukeak egitea komenigarria da.

Interesgarriak dira euskararen eguna dela eta erakunde ezberdinek abiarazitako ekintza parte hartzaileak: nikereeuskaraz, euskara mundiala zein beste egitasmo ugari. Beraiengandik ikasi eta ideiak har genitzake.

Bestalde, arrazismoaren kontrako egunean “Stop Arrazismoa” Flashmob erraldoia antolatu zuten Euskal Herriko herri ezbedinetan. Partaidetza altua izan zen eta bizipenak blog batean bildu zituzten.

18. Entzun eta eguneratua egon

Interneten gauzak bizkor mugitzen dira, azkarregi agian. Gure sareko komunikazioan eguneratua egotea oso komenigarria da gauzak azkar aldatzen direlako eta moldatu ezean desfasatuak gelditzeko arriskua dugulako. Horregatik ikastaroak zein topaketak oso baliagarriak izan daitezke azken tendentzien berri izateko. Era berean aurrez aurreko topaleku hauetan gure antzeko interesak dituztenekin harreman berriak ere egin genitzake, Networking-a.

Badira baita,eztabaida taldeak eta foroak informazioa jaso eta dudak argitzen lagun gaitzaketenak.

19. Emaitzak nola monitorizatu eta neurtu ditzakegu?

Zaila da egindako ekintzen ondorioak zehaztea. Halere, gure jardueraren emaitza eta Plangintzan zehaztu ditugun helburuak zein mailatan bete diren neurtzea ezinbestekoa da, estrategia egokia ote den ikusteko eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko. Horretarako, aurretik honako hau zehaztu behar dugu: zer neurtu nahi dugu? eta, zer tresna erabiliko ditugu hori egiteko?

Interneten baliabide/tresna ugari daude, batzuk ordainduta eta beste batzuk doan, hainbat informazio-mota eskaini ahal digutenak:

- Gure webguneen trafikoari eta jarduerari buruzko informazio estatistikoa. Web 2.0ko tresna gehienek estatistika-sorta bat eskaintzen dute eta, bertan, gure profilean, blogean eta abarrean sortutako trafikoari buruzko datuak eskura ditzakegu. Gainera, gure domeinuetako trafikoaren jarraipena eta azterketa estatistikoa egiteko beste zerbitzu espezifiko batzuk ere badaude, hala nola Google Analytics.
- Gure jarduerak sarean sortu duenari buruzko informazioa (estekak, iruzkinak, etab.). Zuzenean kontrolatzen ditugun lekuetatik kanpo gure jarduerari buruzko informazioa eskuratzeko, ohiko bilatzaileez gain, badaude beste bilatzaile espezializatu edo monitorizatzeko tresna batzuk ere. Ezaugarri edo prestazio asko eta desberdinak eskaintzen dizkigute, eta azken batean horrek erabakiko du zein egokituko zaien gure premiei. Honako hauek dira nagusietako batzuk:
- Beraietan bilaketak egiteko edukiak eta informazio-iturriak (blogak, gizarte-sareak...)
- Gizarte-hedabideek guri buruz zerbait esaten dutenean, guri horren berri emateko tresnak (RSS, e-maila…)
- Joerak monitorizatzea
- Sentimenduaren azterketa
- Neurketetan garrantzi-irizpideak erabiltzea
- Plataformetan guri buruz esaten dutena «gordetegi» bakar batean jasotzeko aukera, gure kontu guztiak kontrolatzeko moduan.
- Beste plataformetako erabiltzaileekin batera eta aldi berean elkarri eragiteko aukera.
- Hainbat pertsonari edo webguneri profilak erosteko gaitasuna
- Widgetsh izatea.

Zenbait ebaluazio tresna:

- **Icerocket:** Bilatzaile honek online zerbitzuetan arakatzen du (blogetan, webguneetan, albistegietan, irudietan, twitterren, myspacen..) gure blogaren, gizarte-profilaren edo erabilitako bilaketa-hitzaren aipamenik ote duten. Gero, emaitzak iturri-motaren arabera sailkatu eta RSSren bidez eskuratzeko aukera ematen digu. Horretaz gain, zehaztuko dugun bilaketa-hitzei buruz epealdi zehatz batean webean zer joera dagoen jakiteko aplikazioa ere badauka, bai eta gure blogaren estatistikei buruzko zerbitzu bat ere (bisitak…). Azken zerbitzu hori eskuratu ahal izateko erabiltzaile erregistratua izan beharra dago
- **Social mention:** 100 online zerbitzu baino gehiagotan bilaketak egin eta erabilitako bilaketa-hitzek sarean duten eragina neurtzeko aukera ematen digu. Horretaz gain, bilaketaren emaitzaren balorazio-azterketa arin bat ere egiten du. Oosta elektronikoan geuk ezarritako hitzen aipamenen inguruko abisuak jaso ahal izango ditugu, geuk aukeratutako iturri-motaren arabera, eta emaitzak RSS bidez jarraitzeko moduan.
- **Addict-o-matic:** Tresna honek hainbat iturritan (bilatzaileetan, etiketatze-sistemetan…) bilaketak egin eta datuak orrialde pertsonalizatu bakar batean jasotzeko aukera eskaintzen du. Orrialde horretan bilaketaren emaitzak automatikoki eguneratuko direnez, bilaketa-orrialde pertsonalizatua sortzeko aukera ematen duela esan dezakegu. Emaitzak iturri edo gune zehatzetara mugatzeaz gain, nahi ditugun gizarte-sareetan partekatu ahal izango ditugu eta, horri esker, erabiltzaileak ez du zertan nabigatuko hainbat orrialde edo bilatzailetan.
- **Google alerts:** Nahi ditugun bilaketa-hitzak eta kontrolatu nahi ditugun iturriak zehaztu ondoren, web zerbitzu honek Interneten horri buruz argitaratutako artikulu edo albisteei buruzko alertak bidaliko dizkigu geure Gmail postara, aukeratutako gai edo albiste zehatzaren berri izan eta haren jarraipena egiteko moduan. Zerbitzu hori eskuratu ahal izateko, kontu bat eduki behar da googlen.

20. Baliabide ezberdinak

Gazteekin loturiko web orriak:

- Zeuk esan: Euskadiko haurrei eta nerabeei zuzendutako laguntza-gunea, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila Eusko Jaurlaritza
- Kolokon.com: Sexua, drogak eta Rock and Rollaren inguruan gazteen hizkuntza erabiliz mintzatzen den web orria. Gazteentzat interesgarri izan daitezkeen gaiak jorratzen dituzte era hurbilean eat agenda zabala eta aholkularitza zerbiztua dute.
- Helpers: 12 kapitulu dituen animazio sail honek tabakoaren arriskuak zeintzuk diren azaltzen ditu superheroi batzuk bizi dituzten abenturen bidez. Europako Batzordearen babesarekin eginiko Help kanpainaren barnean dago.
- Maite Goñiren bloga: Euskal blogosferan erreferente da Maite Goñi eta bere blogak eguneroko gai ezberdinak jorratzen ditu eta gazteekin irakasle gisa izandako eskarmentua era azaltzen du.
- El blog de Loretahur Interneten eta gizarte sareetan gori-gorian dauden gaiak jorratzen ditu Lorenak.

- Nickdutnik programa: Interneten inguruko egitasmo ezberdinak biltzen dituen programa, interneten eta telebistan dago ikusgai.

Internet eta pribatutasuna:

- Pantallas amigas: Pantallas Amigasen helburua teknologia berriak erabiltzerako orduan segurtasuna bermatzea da eta baita hiritartasun digitala sustatzea, gazte eta nerabeen artean.
- **Kontuz datos:** Datuak babesteko euskal bulegoak, eskuliburuak zein bideotutorial interesgarriak ditu.

IKT Eskuliburuak:

- Teknologiak erabiltzeko nerabe eta gazteentzako eskuliburuak. Hainbat ohiko egoera deskribatzeaz gain, honako gaiei buruzko jarduera praktiko batzuk eta informazioa ematen dute: Interneti buruz, herritarrok ditugun eskubideei buruz eta familia, hezitzaile eta ikasleentzako aholkuak.
- Euskara, nerabeak eta Intereneteko sare sozialak Gorka Julioren eskuliburua
- Erabilpen arduratsua IKT-etan eta sare sozialetan bermatzeko tutoriala Estremadurako Gazteriako Kontseiluak prestatua
- Bideo amateurrak editatzeko dekalogo aurreratua
- Kultura 2.0 prestakuntzarako koadernoa eta pilula
- http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2011/04/kuadernoa-prestakuntza11.pdf
- http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2011/04/pilulak-prestakuntza1.pdf
- Eusko Jaurlaritzaren gizarte-saretako erabileren eta estiloaren gida

IKT taldeak:

- Aprendices: Web sozialaren inguruko taldea, google groups irekia eta parte hartzailea dute eta IKT inguruko gaiez mintzo dira. Aurrez- arreko tailer ezberdinak antolatzen dituzte taldekideek: "el que propone se la come" lema dute. Gai bat okurritzen bazaizu zuk antolatu behar duzu tailerra. Orain arte 13 gairen inguruko tailerrak antolatu dituzte eta informazio osoa eskuragai dago wikian.
- Ikasblog: Ikastolen elkarteko egitasmoa da eskoletako blogak, ikasleenak zein irakasleenak biltzen ditu.

Beste gizarte sare batzuk:

- Diaspora: Zu zara sare sozial honetan zure edukien jabea eta zure esku dago infomazioa norekin banatzen duzun erabakitzea. Sare honek ez du inolako eskubiderik zure edukiengan. Kode irekia du.
- GNOSS webeko espazio bat da eta baliabide ezberdinei esker talde pertsona eta erakundeak biltzeko bidea eskaintzen du. Ezagutzaren trukean oinarritzen da.
- Eskola 2.0**:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abiarazitako Eskola 2.0 proiektuko sare soziala http://eskola20.ning.com/